Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

987

AGINDUA, 2009ko abenduaren 11koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Bilboko "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

1.– Jesús María de Leizaola kultura-elkarteak, José Antonio Dorronsoro Barberena jaunak ordezkatuta, "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa" eratu du, Bilboko notario Juan Benguría Cortabitarte jaunaren aurrean 2009ko maiatzaren 20an emandako eskritura publikoaren bidez (protokolo-zenbakia: 530).

2009ko ekainaren 29an eman zitzaion sarrera eskritura horri Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, eta 2009-09-09an zenbait alderdi zuzentzeko eskatu zitzaion. Idazki horri erantzunez dokumentazio osagarria aurkeztu zuten, non fundazioaren lehen ekitaldi ekonomikoko aurrekontuaren eta horren memoriaren azalpena egiten zen.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordea bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2009ko azaroaren 16an.

2.– «Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa»ren helburua estatutuen 3. artikuluan dago jasota:

"Lendakari Zarra", izenez ezagutzen zen Jesús María de Leizaola Sánchez jaunaren bizitzako oinarri izan ziren balioak zabaldu eta sustatzea ditu helburu Jesús María de Leizaola Fundazioak. Hona hemen balio horiek: euskara, kultura eta euskal usadioen sustapena, giza eskubideak errespetatzea, bakea gatazkak ebazteko bide bakartzat hartzea, erakunde demokratikoak indartu eta herritarrengana hurbiltzea, Euskadiko ehun sozioekonomikoa sustatzea, ondoko sektore eta jarduerei berariazko arreta jarrita: talentuak eta berrikuntza sortzen dituen ikerketa-sektoreari, euskal kultura hedatzeko eta aberastasuna sortzeko baliagarri

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

987

ORDEN de 11 de diciembre de 2009, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa«.

Visto el expediente por el que se solicita la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la denominada "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa", de Bilbao (Bizkaia), sobre la base de los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Por la Asociación Cultural Jesús María de Leizaola (representado por D. José Antonio Dorronsoro Barberena), se ha constituido la denominada "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa" mediante Escritura pública de constitución otorgada el 20 de mayo de 2009, ante el Notario de Bilbao, D. Juan Benguría Cortabitarte, número 530 de su protocolo.

Dicha escritura tuvo entrada en el Registro de Fundaciones del País Vasco el 29-06-09, requiriéndosele con fecha 09-09-09 la subsanación de determinados extremos. En contestación a dicho escrito, presenta documentación complementaria clarificadora del presupuesto fundacional del primer ejercicio económico y de la memoria explicativa del mismo.

Reunida la Comisión Técnica de la Comisión Asesora del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emite, con fecha 16 de noviembre de 2009, informe favorable a su inscripción registral.

2.– El fin fundacional de la denominada "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa" viene establecido en el artículo 3 de su norma estatutaria:

La Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa, tiene por objeto difundir y promover los valores que en vida le fueron inherentes a D. Jesús María de Leizaola Sánchez, también conocido como "Lendakari Zarra", y que son el fomento del euskera, la cultura y las tradiciones vascas, el respeto a los derechos humanos y el apoyo al concepto de Paz como vía única para la resolución de conflictos, la potenciación y acercamiento a la ciudadanía de las instituciones democráticas, la promoción del tejido socioeconómico de Euskadi, con especial atención al sector investigador, generador de talento e innovación, a la activi-

den turismo sektoreari, etorkinei arreta eskaintzeari biztanleriaren sektore berria diren aldetik, eta ingurumena sustatu eta eremu horretan esku hartzeari etorkizuneko erronka gisa.

Helburu zabal horien barruan, honako ekintza garrantzitsu eta berehalako hauek gauzatuko ditu:

1) Euskal hizkuntza eta kultura sustatzeko ekintzetan parte hartzea, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatutako Euskal Astean edo Euskara Bizia programan esaterako, aisiaren esparru berrietan euskara sustatzeko.

2) Pakea eta giza eskubideak sustatzeko jarduerak antolatzea, erakundeak euskal herritarrengana orokorrean eta gazteengana bereziki hurbiltzeko.

3) Era guztietako lehiaketa eta txapelketak antolatzea eta Leizaola Sariak deitzea, Jesús María de Leizaola jaunak bere bizitzan izan zituen balioekiko konpromisoa duten pertsona ospetsuei eta erakundeei esker ona adierazteko, hau da: zuzentasuna, euskal kultura defenditzeko konpromisoa eta horretan burubelarri aritzea, Euskadiko ekonomia sustatzea, ingurumena zaintzea…

4) Euskararen erabilera sustatu eta hedatzeko aldizkari eta argitalpenak argitaratzea eta herritarrei prestakuntza eta informazioa ematea.

5) Besteak beste ondoko arloetan gailentzen diren gazteentzako bekak edo laguntzak sustatzea: kulturaekoizpena, ikerketa, giza eskubideen defentsa edo ingurumenaren babesa.

6) Baliabideak biltzea.

7) Fundazioaren helburuak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein.

3.– Fundazioaren egoitza, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan adierazten denez, hau da: Zabalburu plaza 2 bis, eskuineko solairuartea 6. departamentua - Bilbao (Bizkaia).

4.– Hasierako diru-hornidura hogeita hamar mila (30.000) eurokoa da, eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioan, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak lortzeko, fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren arabera, lege hori aplikatzekoa baita azken xedapenetatik lehenengoaren indarrez.

5.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioadad turística como generadora de riqueza y difusora de la cultura vasca, la atención a los nuevos sectores de población como las personas inmigrantes y la promoción e intervención en el ámbito medio ambiental como reto de futuro.

Dentro de estos amplios objetivos, tendrá como actividades concretas más importantes e inmediatas las siguientes:

1) Desarrollo de actividades en el ámbito del encuentro cultural para la promoción de la lengua y la cultura vasca, como la Euskal Astea de la Universidad del País Vasco o el programa Euskara Bizia para promover el euskera en los nuevos espacios de ocio.

2) Organizar actividades para fomentar la Paz y los Derechos Humanos acercando así mismo las instituciones a la ciudadanía vasca en general, y a las/los jóvenes en particular.

3) Organización de Concursos y certámenes de todo tipo, así como convocar los Premios Leizaola, para reconocer a aquellas personalidades e instituciones especialmente comprometidas con los valores que en vida encarnó D. Jesús María de Leizaola: honestidad, entrega y compromiso en la defensa de la cultura vasca, la promoción de la economía de Euskadi, el cuidado al medio ambiente,…

4) Edición de revistas y publicaciones para promover y difundir el uso de la lengua vasca, y formar e informar a la ciudadanía en general.

5) Promoción de Becas o Ayudas orientadas a jóvenes valores que destaquen en el ámbito de la producción cultural, de la investigación, de la defensa de los Derechos Humanos o de la protección al medio ambiente, entre otros.

6) Allegar recursos.

7) Cualesquiera otros que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.

3.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en la Plaza Zabalburu 2 bis, entreplanta derecha, departamento 6, de Bilbao (Bizkaia).

4.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se acredita como adecuada y suficiente para el cumplimiento de los fines fundacionales, de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre de Fundaciones, de aplicación en virtud de su Disposición final 1.ª.

5.– La representación, administración y gobierno de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito,

ren estatutuetako 9. eta 12. artikuluan jartzen duen moduan.

6.– Hasierako Patronatua, Estatutuetako 10. artikuluan ezarritakoaren haritik Fundazioaren eraketa-eskrituran xedatutakoaren arabera, honako hauek osatzen dute:

de acuerdo con los artículos 9 y 12 de los Estatutos fundacionales.

6.– El Patronato inicial, conforme se establece en la escritura de constitución fundacional siguiendo lo establecido en el artículo 10 de los Estatutos, está integrado por:

Kargua		Iraupena
Lehendakaria	José Antonio Dorronsoro Barberena jauna	2014-05-20ra arte.
Idazkaria:	Francisco José Zubiaur Gallego jauna	2014-05-20ra arte.
Diruzaina	María Concepción Manzanal Martín andrea	2014-05-20ra arte.

Cargo		*Duración*
Presidente	*D. José Antonio Dorronsoro Barberena*	*Hasta el 20/05/2014*
Secretario	*D. Francisco José Zubiaur Gallego*	*Hasta el 20/05/2014*
Tesorero	*Dña. María Concepción Manzanal Martín*	*Hasta el 20/05/2014*

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 4. artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.– Legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Aipatu arauak eta oro har aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Todos ellos han aceptado sus respectivos cargos conforme las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– Corresponde la Consejera de Justicia y Administración Pública, mediante Orden, la resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud de lo dispuesto en el artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 4 del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio; y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y 36 y ss. del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

Vistas las normas mencionadas y demás normas de general y pertinente aplicación.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Gaurko egunez, F-255 zenbakiaz, Bilboko (Bizkaia) "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak seigarren aurrekarian aipatzen dira eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko abenduaren 11.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

La Consejera de Justicia y Administración Pública:

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de F-255, de la constitución de la denominada "Fundación Jesús María de Leizaola Fundazioa", de Bilbao (Bizkaia) así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el antecedente sexto, quienes han aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 11 de diciembre de 2009.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.